

**2008ko APIRILaren 3an LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
OSPATUTAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2008ko martxoaren 13an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Xabier Mujika alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Adela Mendiola Gomez
Iñigo Aginalde Lertxundi
Karlos Irazu Muñoa

Bere ezin etorria azaltzen du: Igor Barandiaran Perez de Arriluzea

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. **Ondoren adierazten den Udalbatzarreko akta onestu, hala badagokio:**
 - **2008ko martxoaren 13an ospatutako ohiko bilkura.**
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
3. **2008 urterako langileen agutegiak onartzea, hala badagokio**
4. **Fakturak eta ordainketak.**
5. **Beste batzuk.**
6. **Erregu, galderak eta mozioak.**

.../...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADAGAKIO.

- ▣ 2008 urteko martxoaren 13ko Ohiko Udalbatzaren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Idazkari-kontuhartzaileak ez direla eman azaltzen du.

HIRUGARREN PUNTUA

2008 URTERAKO LANGILEEN EGUTEGIAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

Idazkari-Kontuhartzaile andreak Larraulgo udal langileen 2008 ekitaldirako egutegiak aurkeztu ditu.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: 2008urterako Udal langileek aurkezturiko egutegiak onartzea.

LAUGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

INDARBI ELEKTRIZITATEA	81,12
EUSKALTEL	140,73
TELEFONICA	91,27
TELEFONICA	20,36
TELEFONICA	16,21
TELEFONICA	29,74
MANPEL	27,26
JOXAN ALTUNA (orduak)	729,74
JOXAN ALTUNA(Kilometroak)	9,60
UROLA TUBOS	386,29
GIPUZKOAKO URAK	8.797,48
COMASA	257,71
FERRETERIA BARBE	17,50
KIROLZER	124,20

Udalbatzarrak **ahobatez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

LEHENGOA.- Aipaturiko fakturak, denera **10.729,21** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

BOSGARREN PUNTOA
BESTE BATZUK

Idazkariak Udalbatza kideei jakinarazten die, proposamen bat aurkeztu dutela Herri bideen inbentarioa egiteko, batzarkideei proposamena interesgarria iruditu zaielarik eta aztertuko dutela erabakitzen dutelarik.

SEIGARREN PUNTUA
ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK

6.1.GEHITUK AURKEZTURIKO ADIERAZPEN-PROPOSAMENA

Udalbatzak, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Ondorengo adierazpen-proposamena onestea:

Diskriminaziorik ezaren printzipioa Oinarrizko Eskubideen Gutunaren printzipio nagusietako bat da, eta Larraulgo Udalak, printzipio horren alde egiten duen neurrian, bat egiten du maiatzaren 17^a Homofobiaren eta Transfobiaren kontrako Borrokaren Nazioarteko Eguna izendatzearen aldeko ekimenarekin, sexu-orientazioa eta genero-identitatea gorabehera pertsona guztien eskubide-parekotasuna lortzeko eta sustatzeko borondatearen ikur gisa.

Osasunaren Munduko Erakundearen Batzar Nagusiak homosexualitatea gaixotasun mentalen zerrendatik ezabatu zuenetik 2008ko maiatzaren 17an 18 urte beteko diren honetan, Larraulgo Udalak elkartasun adierazi nahi die, sexu-orientazioa eta genero-identitatea dela-eta mundu osoan zehar diskriminazio larria jasaten duten milioika pertsoneri, eta dei egin nahi die herritar guztiei, eta, bereziki, gainerako erakunde publikoei, homofobiaren eta transfobiaren kontra lan egin dezaten.

Aipatutako konpromiso horiekin bat, Larraulgo Udalak eskaera egiten dio Espainiako Estatuko Gobernuari maiatzaren 17^a Homofobiaren eta Transfobiaren Kontrako Borrokaren Nazioarteko Eguna izendatzea eska diezaion Nazio Batuen Erakundeari.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 22.00 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA